



Testua eta irudiak: **ARNOLD LOBEL**

Itzulpena: **MANU LÓPEZ GASENI**


Cartoné delakoan koadernatua. 15x21,5 cm.

72 orrialde koloretan.

Honako hizkuntza hauetan eskuragarri:

- Euskera: "Txerritxo"
Kalandraka-Pamiela. ISBN 978-84-7681-593-9
- Castellano: "El cerdito"
Libros para Soñar 978-84-96388-93-2
- Gallego: "O porquiño"
Tras os Montes. ISBN 978-84-8464-703-4
- Catalán: "El porquet"
Kalandraka-Hipòtesi. ISBN 978-84-936667-8-1
- Portugués: "O porquinho"
Livros para Sonhar. ISBN 978-989-8205-28-5

Salneurria: 15 €



TXERRITXO

Txerritxo baserriko txerritegian bizi da.

Txerritxok atsegin du jatea, eta atsegin du txerritegian barrena korrika egitea, eta atsegin du lo egitea. Baina Txerritxok gehien atsegin duena esertzea eta lokatz on bigunean murgiltzea da.

Baserritarrak eta haren emazteak maite dute Txerritxo.

«Guretzat munduko txerririk onena zara», diote.

Hiri handi bateko espaloian zimendatuta amaitzen duen txerritxoaren istorio hau Arnold Lobel "Sagu kontuak" eta "Sagu zopa" KALANDRAKako titulu kutun, samur eta ederren egilearen irudimenetik sortua da. Lobelen obraren ezaugarrien artean, doinu pertsonalak, oinarriko emozioak eta eguneroko giroak aurki daitezke. Hortik datorkio literatur estiloaren laburtasuna, irudikatu nahi duen giza kondizioa bezalako funtsezko hitzetan oinarritua.

Txerritegia garbitzea bezalako ekintza xalo eta aldi berean kontraesankorrak burugabekeria sail oso bat eragin du, eta Txerritxo askatze-operazio konplexu baten protagonista bihurtu du. Txerritxoren zoritxarrak hunkitu egiten gaitu, baina aldi berean irribarrea sorrarazten digu. Irudiek azpimarratu egiten dute umore hori, baserritik hirirako joan-etorriko bidaia ahaztezinean.

ARNOLD LOBEL

(Los Ángeles, 1933-New York, 1987)

Artea ikasi zuen Pratt Institute delakoan. Hantxe ezagutu zuen emazte izango zuen Anita Kempler ilustratzailea. Publizitate agentzia baterako lanean hasi zen, eta geroago beste egile batzuek idatzitako liburuak ilustratzeari ekin zion. 1962an argitaratu zuen bere lehen liburua, "A Zoo for Mister Muster", eta handik urtebetera "A Holiday for Mister Muster". Idazle eta ilustratzaile gisa irakurleen zein kritikaren txaloak jaso zituen. Jasotako sarien artean, berriz, Caldecott Honour Book, Christopher Award, Caldecott Award eta Newbery Honour Book direlakoak aipa

daitezke. Bere ibilbide luzean zehar beste idazle batzuen 70 bat lan ilustratu zituen, eta berak idatzi eta ilustratutako beste hogeita hamar bat argitaratu zituen.



- **Gaia:** umorezko kontakizuna
- **Gomendatutako adina:** Haur Hezkuntza
- **Alderdi azpimarragarriak:** haur literaturako klasiko bat, "Sagu kontuak" eta "Sagu zopa" (Kalandraka) direlakoan egile berarena
- **Erabilerak:** irakurtzen hasteko, baserriko eta hiriko ingurugiroen arteko desberdintasunak, etxabereak, kutsadura